ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko uztailaren 18a, astelehena • 81 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Sozietate partaidetzen eta partaidetzako maileguen enkantea

Derrigorrezko dirubilketako bulegoan BM & Alessio Investments SLUren aurka (IFZ: B01456920) izapidetzen ari den premiamenduzko administrazio espedientean, maiatzaren 25eko 1021/2016 Ebazpenaren bidez, baimena eman zen beherago adierazten diren ondasunak enkante publikoan saltzeko.

Adierazitakoa oinarri hartuta, eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Arautegi Orokorrak 175. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2016ko ekainaren 1ean ondoko hau eman zen:

"Probidentzia, agintzen duena bahitutako ondasunen enkantea egitea, 2016ko irailaren 13an, 11: 00etan, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketako bulegoan (Probintzia plaza, 13, behea, Gasteiz), maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak, Foru Dirubilketako Arautegi Orokorra onartzen duenak, 176., 177. eta 178. artikuluetan xedatutakoa betez hura izapidetu eta egiterakoan."

Probidentzia hori betetzeko, argitara ematen da enkante iragarki hau, eta honako hau jakinarazten zaie lehiaketan parte hartu nahi dutenei:

1. Hona hemen besterenduko diren ondasunen deskribapena:

1. Lotea. Megatech Industries SL enpresaren 13.000 sozietate partaidetza eta partaidetzako 2 mailegu.

2. Indarrean jarraituko duten kargek: bat ere ez.

3. Enkante oinarria, lehenengo lizitazioan, 1.162.966,00 euro (milioi bat ehun eta hirurogeita bi mila bederatziehun eta hirurogeita sei euro) izango da.

4. Enkantea hasi eta gero, eskaintzen arteko tartea hiru mila (3.000,00) euro izango da. Eskaintzak horretara egokitu beharko dira.

5. Ondasunak Arabako Foru Aldundiarentzat bahiturik daude eta zordunaren jabetza dira, Megatech Industries SLren administratzaile bakarrak 2015eko ekainaren 18an egindako ziurtagiriak dioenez.

6. Behar bezala identifikatutako pertsona fisiko edo juridikoek hartu ahal izango dute parte enkantean lehiatzaile gisa, zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna badute eta parte hartzeko legezko eragozpen edo mugarik ez badaukate.

7. Lehiatzaileek, gutxienez, enkanteko oinarrizko prezioaren ehuneko 20 jarri beharko dute gordailu gisa, enkantearen mahaian. Esleipendunak ez badu ordaintzen erremateko prezioa, kopuru hori Foru Ogasunean sartuko da behin betiko. Horrez gainera, erantzukizunak ere eskatu ahal izango zaizkio lehiatzaileari, esleipenaren eraginkortasunik ezak gordailuaren zenbatekoa baino kalte handiagoak sortzen baditu.

8. Enkantea ahozko eskaintzen sistemaz egingo da. Horrez gainera, gutun azalean itxitako eskaintzak ere onartuko dira, enkantea iragartzen denetik eta hori hasi baino ordubete lehenago arte –azken eskaintza hauek gehienekoak izango dira. Derrigorrezko dirubilketako bulegoan

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

erregistratuko dira eskaintzak, eta, haiekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: Arabako Foru Aldundiaren aldeko txeke ziurtatua, gordailuaren zenbatekoaz; lizitatzailearen nortasun agiri nazionala, eta, hala badagokio, daukan ordezkaritza egiaztatzen duen eskritura publikoa edo agiria. Estos documentos podrán ser sustituidos por copias cotejadas de los mismos.

9. Enkantea ondasuna esleitu aurreko edozein unetan etengo da zorra, interesak eta prozeduraren kostuak ordaintzen baldin badira.

10. Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak, Kapital sozietateen Legearen testu bateratua onartzen duenak, 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasunak eskuratzeko lehentasunezko eskubideak dituen interesdunen bat izan badaiteke, enkantea egin eta gero, esleipena baino lehenago etenda geratuko dira erematearen onarpena eta bahitutako sozietate partaidetzen eta partaidetzako maileguen esleipena, eta sozietateari enkante agiriaren edo esleipen erabakiaren hitzez hitzeko lekukotasuna bidali beharko zaio. Sozietateak lekukotasun horren kopia helaraziko die bazkide guztiei gehienez ere bost eguneko epean, lekukotasun hori jasotzen denetik aurrera.

Erematea behin betikoa izango da sozietateak aurretik aipatu den lekukotasuna jasotzen denetik hilabete igarotakoan, eta erremategileak gordailuaren eta esleipen prezioaren arteko aldea jarri beharko du esleipenaren ondoko bost egunetan. Behin betiko bihurtu bitartean, bazkideak eta, horien faltan, sozietatea (estatutuek lehentasunezko eskuratze eskubidea aitortzen badiote bakarrik), erremategilearen ordez subrogatu ahal izango dira, enkanteko baldintza guztiak espresuki onartuz eta erematearen eta sortutako gastu guztien zenbatekoa oso-osorik jarriz. Subrogazioa bazkide bat baino gehiagok eginez gero, partaidetzak eta partaidetzako maileguak guztien artean banatuko dira, bakoitzak dituen partaidetzen proportzioan.

11. Lehenbiziko enkantea esleipenik gabe geldituz gero, mahaiak bigarren lizitazioa egitea erabaki dezake ekitaldian bertan. Bigarrenak lehenengoaren betekizun berak izango ditu. Horretarako, ordu erdiko epea emango da, lehiatu nahi dutenek gordailua egin dezaten; ondasunen oinarrizko prezioa, bestalde, lehenengo lizitazioarena baino ehuneko 25 txikiagoa izango da. Mahaiak, baita ere, saldu eta zuzenean esleitzeko izapidearen aurka jo ahal izango du.

12. Enkante bidezko salmenta honen ondorioz sortzen diren agiri publikoa formalizatzeko gastuak eta zergak esleipendunaren kontura izango dira.

Hau guztia ALHAOn argitaratzeko agintzen dut, eta ohartarazten ezen iragarki honek jakinarazpenaren balioa izango duela bizileku ezezaguneko zordunentzat, baita arlo zibil edo administratiboaren ikuspegitik interesa izan dezaketen beste hirugarren batzuentzat ere.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 29a

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTÍNEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.07.18 05:44:45 Z